

LARRABETZU 2025: EUSKARA

LARRABETZUKO UMEEN KONTSEILUAREN EKARPENAK

1-Zer da euskara?

HIZKUNTZA / ALTXOR BAT / JAINKO BAT / INDAR BAT / AHOKO KIROLA / ELKARTZEN GAITUENA / THE BIG PO / ZAPORE GOXOA / OBJETU INBISIBLE BAT / GUTXITZEN DENA / MIERDA BAT / SENTIMENTU BAT / PERTSONAK / HERRI BAT / JANARI BAT.

2-Zertarako balio du?

HITZ EGITEKO / KOMUNIKATZEKO / JOLASTEKO / IKUSTEKO / LAGUNTZEKO / ENTZUTEKO / IKASTEKO / ESPRESATZEKO / AHOA MUGITZEKO / ELKARTZEKO / GAUZAK IZENDATZEKO / BESTEEI ULERTZEKO.

6-Daukazuen euskara mailarekin pozik zaudete? ..Eta gaztelaniakoarekin? ...eta ingelesezkoarekin?

ADITZEKIN BATZUETAN... / INGLESAREKIN ASMATZEN DUGU: TXAKURRA = PERREISION, ADIBIDEZ.

9-Euskaraz hitzegiten ezeroso sentitzen zarete batzuetan?

JENDE AURREAN HITZEGIN BEHAR DENEAN / EZ DAKIDANEAN ZERBAIT EUSKARAZ ESATEN / EUSKAÑOL ERABILTZEN DUGU BATZUTAN, HITZ BAT EDO FALTA ZAIGUNEAN EUSKARAZ.

10-Zergatik pasatzen gara batzutan gaztelaniara?

HITZAK EDO ADITZAK EZ DAKIZKIGULAKO, TRABATZEN GARELAKO / EZ DAKITENEKIN HITZEGITEKO / BESTE NORBAIT HASTEN DELAKO / HITZ BATZUK (KOMODIN) ERDERAZ ESATEN DIRELAKO.

11-Euskara inportantea da zuentzat?

BAI / EZ

Zergatik?

EUSKALDUNON HIZKUNTZA DELAKO / FRANCOREKIN IA GALDU ZELAKO / KIROLA DELAKO / GURE BIZITZAKO PARTE BAT DELAKO / GUK HOLAN HITZEGITEN DUGULAKO / DESAGERTUKO DELAKO / HORRELA KOMUNIKATZEN GARELAKO / HIZKUNTZA BAT GEHIAGO JAKITEKO / JENDEARI IKASTEN LAGUNTZEKO / POLITA DA.

...eta gaztelania?

BAI, EUSKARAZ EZ DAKITENEKIN KOMUNIKATZEKO BALIO DIGULAKO /
GUSTATZEN ZAIT.

EZ DA INPORTANTEA.

13-Zer gustatuko litzaizueke euskaraz egin ahal izatea herrian?

DANA / JOLASALDIAN ERDARA ATERATZEN ZAIGU. EUSKAÑOLA ERE:
ERRAZTASUNA EZ DEKONARENTZAT BALIO DU, HORRELA EUSKARAZ EGITEN
DOGU.

14-Zerk emango lizueke euskara erabiltzeko gogo handiagoa?

IKUSTEA JENDE GEHIENAK EUSKARAZ EGITEN DUELA / MILOI BAT EURO
JASOTZEA EUSKARAZ EGITEAGATIK / INMORTALA IZATEA EUSKARA
EGITEAGATIK / SUERTE ONA EDUKITZEA / EUSKARAZ EGINEZ GERO ALTXOR
KOFREA TOPATZEN DUZULA / 3 DESIO ESKATU AHAL DIRELA.

Eta gutxiago?

HASERRETZEN NAIZENEAN HASTEN NAZ GAZTELERAZ / INOR EZ ENTZUTEA
EUSKERAZ.

15-Arazorik ikusten duzue euskararen kontuan?

BATZUTAN GORROTATZEN DUT EUSKERA. EZ DITUT ULERTZEN ADITZAK OSO
ONDO. JARTZEN DIDATE PENKO.

17-Zer gustatzen zaizue euskararen edo euskaratik?

POLITA DELA.

Eta zer ez zaizue gustatzen?

ESKOLAN DENBORA OSOAN HITZEGIN BEHAR DA.

18-Zuek zer behar zenukete gehiago erabiltzeko?

ENTZUTEA EUSKARAZ GEHIAGO.

...Eta zuen ingurukoek?

IKASTEKO LAGUNTZA.

19-Herri mailan zer egin daiteke euskararen erabilera sustatzeko?

NAGUSIENTZAKO EUSKARAZKO KLASEAK EGITEA OSO MERKEAK EDO GRATIS /
UMEEK AMUMA, AITITE ETA GURASOEI ERAKUSTEA /
UDALEKUAK EGIN BEREZIKI EUSKARAZ EGITEKO /
KANTATZEN /

KRUZIGRAMAK EUSKARAZ, LEHIAKETA PLAZAN /

EUSKERAZ JOLASAK /

EUSKARAZ EGITEKO EKINTZAK NAGUSIENTZAT /

EUSKARAZ HITZ EGITEKO IRTEERAK /

GUGANDIK HASI /

MIHILUZE MODUKO BAT NAGUSIENTZAT /

MUSIKA EUSKERAZ: GAZTEEK ENTZUTEN DITUZTEN MUSIKA ESTILOAK
KONTUAN HARTUZ, EUSKARAZKO MUSIKA SUSTATZEA ETA ELKARBANATZEA
(JAIETAN?) (ADIBIDEZ, REGGAETON EUSKERAZ EGITEN DENIK EZ DAKITE
GAZTE GEHIENEK, BA MUSIKA HORI HELARAZI NOLABAIT...)

...Eta euskararekin amaitzeko?